

LEHERTU, ATERTU, DESERTU

Maialen Akizu Bidegain

Urretxu

*Gustuko dut euria
kanpoan ari badu*

Tantek, mundua gelditzen dute euren erritmora
musukatzen dute, behin eta berriz,
ordulariko orratz txikia.
tik-tak tuk tuk tik-tak tik-tak tik-tak tuk
bi soinu, musika bat.
Denbora zintzilik
harian hiria.

Hiritarren zapatak
kafeari bi zurrut
korrika,
udarako gau euritsuak maite dituztela ahaztuta
korrika
berdin bustiko direla jakin arren
badaezpada ihes.

Aterkirik gabe ateratzen den horietakoa naiz,
ez iezadazu zurearen babeska eskaini,
errukiz.

Busti egin nahi dut espaloiko zigarrokina bezala,
busti pagoaren adarreko hostoen distiraz,
busti Indiako neskato eskaleen zapien gisan,
ur berdinez.

Hankak lurrean.

Tanta naiz, tanta zara, gara.

Ez saiatu behetik gora joaten.

Gustuko dut euria

kanpoan ari badu

Gaur ere egin duzu eztanda.

Udaberriko euriteen gisara.

Gogoz usaintsu.

Eta begiratzen zaitut kristalaren beste aldetik

azken muxurik ahaztu ez duzun arren

lehor daukat azala

lehor, ile guztiak tente.

Estaltzen gaituen zeruan ez da eguzkirik

ez nire maindire azpian argitzen duen gisakorik.

Loturaz lotura

zubirik zubi

ohartua naiz

eguzkiak eta euriak nekez egiten dutela bat.

Erromako zubia

paperean koloreztatzea erraza den hori.

Gustuko dut euria

kanpoan ari badu

Kristalean euri tantek

egiten dituzten lasterketei so.

D **B**
 E *e*
 S *z*
 b *d*
 e *i*
r *n*
 d *t*
 i *a*
 n *s*
 a *u*
 k *n*
 e
 a
 n

norbera. Nor behera
 lehenago heldu irrikan,
 apustuak.
 Heriori ihes egin nahian dabilta
 heriori segika.
 Eta ni azken irristaldiaren zain.

Herio laster ezagutuko duena ikustea
 beti maite izan du gizakiak.
 Inoren heriotza ikusita, norberarenari buruzko
 ikasgairen bat aterako duelakoan.
 Morboa sortzen digu
 heriotzak,
 besteen heriotzak
 kristaletik haratago begiratzan dugunean.
 Gardentasunak babestuko bagintu bezala.
 (Inuzenteak)

*Gustuko dut euria
kanpoan ari badu*

Gaur ere euria ari du kanpoan.
Euskal Herria.
Gauzak ez dira aldatzen.
Leihotik begira jarraitzen duzu, bustitzearen beldur,
eguzkia noizbait aterako delakoan.
Esperantza arantza.
Sustraiei argiarengatik galdezka.

Ez zara ohartzen
ez zara ohartzen saiatu
eguzkia hor da, laino beltzen atzean.
Garapenez hitz egiten duzun bitartean, ez esan,
lainoen kontra haizeak soilik jardun dezakeenik.
Aitzakiak.
Beti besteen lanaren zain.
Langile baten semea.

Amak eman dizkigu bakoitzari bi birika
eta aho bat.
Haurrek urtebetetze bakoitzean duten gogo berare-
kin
kandela bat itzali beharrean
egingo bagenu putz su bat itzaltzeko
iparraldetik hegora
aditzetatik aditzondora
Do-tik si-ra
norabide berean.
Haizeak eratu daitezke.
Lainoak mugitu eta eguraldia atertzen dutenak.

Erretzen duten suak itzali eta pizten duten suak
sortzen dituztenak.

*Gustuko dut euria
kanpoan ari badu*

Isiltasuna maite dudalako
dut agian gustuko euria.
Bere soinua entzun dezakedalako,
belarriei baimenik eskatu gabe sartzen diren zara-
tak ez bezala,
belarriek eskatzen diote euriari kanta dezan.
Ikuzgailua,
sekula galtzen ez diren belar txarrak mozten
bizi-lagunen gaueroko sesioa.
Denak dira euri.

Begitantzen ditut kanpokoen masail bustiak
elkarren kamuflatzaile
malkoak tanta
tantak malko.
Ez ditut bereizten,
besarkadak eskatzeko, emateko, moduak.

*Gustuko dut euria
kanpoan ari badu*

Zeruak maite du oraindik lurra.
Tantaz tantako errekatxoei
deitzen diegu itsaso
eta estolderiek dituzte irensten.
Paperezko itsasontzia

gaur ere inork irakurri ez duen egunkariko lehen
orria.

Euria

komunikatzen behera

ibaiaren gosari

malkoetan garratzegi

itoginetan gogaikarri.

Maitasunaren modukoa.

Forma eta neurri guztietakoa.

Eta gu, desertuan bizi gara.